



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2019ko urtarrilaren 22koa, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza sailburuaren 2018ko urriaren 23ko Aginduaren bidez, urriaren 30eko 209 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak, guztira 173.925 euro.

Bigarrena.- 12. artikulua zehaztutakoaren arabera, II. eranskinean ordezkoen zerrenda ezartzea, hauek hutsuneak gertatuz gero beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean jasota agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Hezkuntza sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 22a

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN~~ADOLFO MORAIS EZQUERRO~~

UNIBERTSITATE ETA IKERKUNTZAKO SAILBURUORDEA